




Kontraktion der Elektronen

$$t^2 - x^2 = 1$$
$$= t'^2 - x'^2$$



-une? -gune?



Jatorriz forma beraren bi aldaera besterik ez dira **-GUNE** eta **-UNE** atzizkiak. Egungo erabilerak, halere, honela bereizten ditu haien esanahiak:

- **-GUNE** → tokia
- **-UNE** → denbora



Bi formen arteko aldea ikus daiteke honako bikote hauetan:

● **-GUNE** → tokia

**ahulgune** iz. Alderdi ahula.

**argigune** 1. iz. Argia dagoen tokia.  
2. iz. Oihan bateko soilgunea.

● **-UNE** → denbora

**ahulune** iz. Ahulaldia.

**argiune** iz. Argitasunezko unea edo aldia.




## **-GUNE**

Toki-zentzua duten hitz eratorriak osatzeko baliatzen da. Hona *Euskaltzaindiaren Hiztegian* agertzen direnak:

|                  |                    |                    |                      |
|------------------|--------------------|--------------------|----------------------|
| <i>abiagune</i>  | <i>babesgune</i>   | <i>bizigune</i>    | <i>estalgune</i>     |
| <i>ahulgune</i>  | <i>belargune</i>   | <i>bizkargune</i>  | <i>estugune</i>      |
| <i>alhagune</i>  | <i>berdegune</i>   | <i>bustigune</i>   | <i>eurogune</i>      |
| <i>argigune</i>  | <i>bihurgune</i>   | <i>egongune</i>    | <i>eztabaidagune</i> |
| <i>apalgune</i>  | <i>bilgune</i>     | <i>elkargune</i>   | <i>gogorgune</i>     |
| <i>arnasgune</i> | <i>biragune</i>    | <i>erabakigune</i> | <i>goragune</i>      |
| <i>artizkune</i> | <i>biribilgune</i> | <i>erdigune</i>    | <i>haizegune</i>     |



**-GUNE**

|                   |                  |                     |                     |
|-------------------|------------------|---------------------|---------------------|
| <i>hargune</i>    | <i>itzalgune</i> | <i>pasagune</i>     | <i>zabalgune</i>    |
| <i>herrigune</i>  | <i>kokagune</i>  | <i>pausagune</i>    | <i>zelaigune</i>    |
| <i>hertsigune</i> | <i>langune</i>   | <i>sakangune</i>    | <i>zerbitzugune</i> |
| <i>hezegune</i>   | <i>laugune</i>   | <i>sargune</i>      | <i>zikingune</i>    |
| <i>hirigune</i>   | <i>lazgune</i>   | <i>soilgune</i>     | <i>zimurgune</i>    |
| <i>hormagune</i>  | <i>lerragune</i> | <i>sorgune</i>      | <i>zokogune</i>     |
| <i>ikusgune</i>   | <i>lurgune</i>   | <i>telefonogune</i> | <i>zolagune</i>     |
| <i>ilungune</i>   | <i>makurgune</i> | <i>topagune</i>     | <i>zulogune</i>     |
| <i>indargune</i>  | <i>mehargune</i> | <i>ukigune</i>      | ...                 |
| <i>irekigune</i>  | <i>mehegune</i>  | <i>uspelgune</i>    |                     |
| <i>irtengune</i>  | <i>mendigune</i> | <i>webgune</i>      |                     |



**-UNE**

Denbora-zentzua duten hitz eratorriak osatzeko baliatzen da. Hona *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ageri direnak:

|                |                 |                 |
|----------------|-----------------|-----------------|
| <i>ahulune</i> | <i>aterrune</i> | <i>geldiune</i> |
| <i>aldiune</i> | <i>egiune</i>   | <i>hutsune</i>  |
| <i>argiune</i> | <i>etenune</i>  | <i>isilune</i>  |
| <i>astiune</i> | <i>ezune</i>    | <i>larriune</i> |

## SALBUESPENAK:

- Koloreei dagozkien zenbait eratorri:
  - *Beltzune, gorriune, ubelune, zuriune*
- Beste zenbait hitz:
  - *Hutsune, ingurune, okerrune, sakonune*

## Zenbait adibide:

- **Gorriuneak** atera zaizkio besoetan.
  - \*Gorriguneak...
- Bi haitz ilunen arteko **sakonunea** gurutzatu zuten.
  - \*sakongunea



## IDAZKERA

Oro har, loturik idaztekoak dira **-(G)UNE** atzizkia daramaten hitzak, Euskaltzaindiaren 25. arauan ("Hitz elkartuen osaera eta idazkera") xedatzen denez.

Honako egitura hauek ditugu:

1. Hitz eratorriaren oinarria aditzoina edo adjektiboa denean, loturik idazten da:

- **abiagune, aterruna, babesgune, bilgune, etenune...**
- **ahulune, biribilgune, gogorgune, larriune...**



## IDAZKERA

2. Hitz eratorriaren oinarria izena denean, jokabidea bikoitza da:

- **Batetik**, badira forma lexikalizatuak, loturik idaztekoak:
  - *astiune, belargune, haizegune, hirigune..*
- **Bestetik**, badira izen-elkarte arruntak, marratxo edo bereiz idaztekoak, zeinetan *gune/une* elementuek izen-kategoria duten. Honako kasu hauek ditugu:
  - lehen osagaia hitz eratorria edo hitz-elkarte denean:
    - *administrazio(-)gune, herritartasun(-)gune, hornidura(-)gune, jaulkipen(-)une, merkataritza(-)gune, salmenta(-)gune...*



## IDAZKERA

– edo mailegu berria denean:

- *nukleazio(-)gune, osifikazio(-)gune, Wifi(-)gune...*

(Salbuespena: webgune)

– edo, besterik gabe, **gune/une** elementuek izen-kategoria dutenean (hau da, beren adierei eusten dietenean):

- *aginte(-)gune, atsedeen(-)une, bake(-)une, elur(-)gune, fabrika(-)gune, ironia(-)une, krisi(-)une, logela(-)gune, maniobra(-)gune, ostatu(-)gune, pausatze(-)une, tentsio(-)une, zalantza(-)une, zohikatz(-)gune...*



Nolanahi ere den, bestelako joskerak erabil daitezke, adibideotan bezala:

- Hurrengo hogeitun urteetan, Hong Kong izan zen britainiarren **droga-merkataritzaren gunea**.
- Monasterio eta tenpluak, sei mila monumentu sakratu eta **jakinduriarako eta gurtzarako gune**, hondakinetan zeuden.
- **Pausatzeko unea hurbil da.**
- ...

## Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia (2018). *Euskara batuaren eskuliburua* ([EBE](#)). Bilbo: Euskaltzaindia.

## Adibideen iturriak:

- EHUskaratuak **UPV/EHU**
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG) **UPV/EHU**
- *Euskaltzaindiaren hiztegia*
- ZIO Corpora **UPV/EHU**
- Zuzenbide Corpora (ZCP) **UPV/EHU**

Euskara  
Batuaren  
Eskuliburua (EBE)

A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak

